

EUSKAL EKONOMIA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA JAKINTZA ARLOKO CURRICULUMEAN

Iñaki Esparta

RESUMEN

Los objetivos perseguidos al redactar esta comunicación han sido los siguientes:

1. Contribuir a la Institucionalización de los estudios sobre economía vasca en el curriculum de Ciencias Sociales, Geografía e Historia de la Educación Secundaria Obligatoria.

2. Realizar una lectura de los contenidos conceptuales del área citada con base en la epistemología de la ciencia económica.

3. Determinar la presencia de contenidos conceptuales sobre economía vasca en el Diseño Curricular Base del área de Ciencias Sociales, Geografía e Historia de la Comunidad Autónoma Vasca, y analizar las posibilidades que una concepción abierta y flexible del curriculum ofrece para su tratamiento en el aula.

4. Ofrecer una serie de reflexiones y pautas al profesorado de esta área para que en los Proyectos Curriculares de Centro y programaciones de aula que lleven a cabo puedan incorporar temas sobre economía vasca.

5. Abrir un debate entre quienes manifiesten interés en enriquecer el área de ciencias sociales a partir de las aportaciones de otras disciplinas no contempladas hasta ahora.

En orden a la consecución de los objetivos propuestos, se han analizado los bloques de contenido del DCB del área de Ciencias Sociales, Geografía e Historia de la Comunidad Autónoma Vasca. El análisis se ha realizado siguiendo el siguiente esquema de trabajo:

1. Introducción En cada bloque de contenidos se explicita el núcleo temático relacionado con la economía vasca, en particular, o con la economía en general y se realizan diversas consideraciones epistemológicas desde la perspectiva de la ciencia económica.

2. Contenidos conceptuales seleccionados. En cada bloque se seleccionarán, lógicamente, aquellos contenidos que remiten de forma directa a algún aspecto de la economía vasca. Pero, además de ellos, también se seleccionarán los Contenidos referidos a conceptos y principios económicos de carácter general o universal,

siempre que se considere que puedan ser tratados tomando como base de referencia la economía vasca.

3. Temas sobre economía vasca. Los contenidos conceptuales seleccionados previamente se agruparán en diversas temáticas relacionadas con la economía de Euskal Herria. De este modo, se pretende lograr que la selección realizada muestre una determinada lógica, coherencia y unidad en torno al eje constituido por la economía vasca. Procediendo de esta forma, dentro del curriculum global de Ciencias Sociales, Geografía e Historia, y en lo que respecta a los contenidos conceptuales, quedaría definido un curriculum básico sobre la economía vasca.

La elaboración de análisis desde las diversas ciencias sociales y desde distintos centros de interés redundará en un mejor conocimiento de la estructura profunda del curriculum.

4. Conceptos a trabajar. Para que los temas referidos a la economía vasca puedan ser tratados de forma conveniente, se propone el trabajo, para su posterior dominio por parte de los alumnos y alumnas, de determinados conceptos claves para la comprensión de la realidad económica.

SARRERA

Dekada honetan zehar burutuko den hezkuntz erreformaren ondorioz ezarriko diren curriculum berrietan euskal ikasketek zernolako lekua izango duten, edo beharbada hobe, izan lezaketen, aztertzea, hezkuntza munduarekin, modu batera edo bestera, lotura dutenen lana da.

Bigarren milurteko honen amaieran Espaimar Estatuan konformatu den errealtate soziopolitikoaren eragina gizartearen nonnahi arlotan nabari daiteke. Hezkuntz sistemak ere, ezinbestean, errealtate horren eragina jaso du, erreforma honetako curriculum berriak izanik honen frogarik adierazgarriena.

Estatuaren antolakuntza berriaren islada bezala, Administrazio zentralak proposaturiko Oinarrizko Curriculum Diseinuetatik (OCD) abiatuz, hezkuntza alorrean konpetentziak dituzten Autonomi Elkartek beren OCDak argitaratu dituzte jakintza arlo ezberdinetarako. Honek, lehen ondorio bezala, Euskal Autonomi Elkarteko eta Nafarroako hezkuntz sistemetan Euskal Herriari buruzko jakintzak instituzionalizatzeko aukera zabaldu du.

CURRICULUM IREKIA ETA JAKINTZEN KONTEXTUALIZAZIOA

Autonomi Elkartek ezarriko dituzten curriculum ofizialek beste bi egokitze-prozesu izango dituzte Zentruko Curriculum Proiektuen eta Gelako Programazioen bidez. Erreforma honen ardatzetariko bat curriculumaren kontzeptzio ireki eta malguaz izatean, jakintzen kontextualizazioa gorengo mailetatik hasita irakas-ikas prozesua ematen den tokiraino eramatea posibilitatzen da.

Jakintzen kontextualizazioak aspektu onuragarri ugari ekar dezake. Inportanteentzat jotzen ditugun hiru aipatuko ditugu, besteak hauen inguruan biltzen baitira nolabait. Batetik, kontextualizazioaren bidez, gizartean erroturik dagoen eskari bati erantzuna amatea lortzen da. Bestetik, irakasle-goaren profesionaltasuna aintzakotzat hartzen da, beraien ekarpena ezinbestekoa izango delako kontextualizazioa gelako praktikaraino hel dadin. Eta, azkenez, proposatzen diren jakintzak, beren esangura, gertutasun eta baliagarritasunagatik, ikasleen interesa pizteko balio dezakete. Kontextualizazio hau Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloan, bere ezaugarri bereziengatik, beste inon baino beharrezkoagoa gertatzen da.

EUSKAL GIZARTEAREN AZTERKETA ZIENTZIA SOZIALEN BIDEZ

12-16 etapako gizarte zientzien arloan kontutan hartu beharreko bi aspektu agertzen dira. Bata, gizarte konkretu baten —euskal gizartea gure kasuan— ezagumendu sozialari lotua. Bestea, ikasleek gizarte zientzien eremuan planteatzen diren problematika, jakinmin, kezka, zalantza eta interrogantei lotua, eta, horren ondorioz, zientzia hauek galdera horiei erantzuna emateko beren ibilbidean zehar erabili dituzten paradigma, kontzeptu, eredu, lege, eta teorioren ezagutzari lotua.

Aipaturiko bi aspektu hauek ez dira bata bestearengandik aldenturik agertzen, elkarloturik baizik. Eta elkarlotura hau bi norabideetan ematen da. Esan nahi da, baterantz, ezinezkoa gertatuko dela euskal gizartearen azterketarik egitea, zientifikorik behinik behin, gizarte zientziek sorturiko tresna teoriko eta kontzeptualik erabili gabe. Besterantz, euskal gizartea erreferente guztiz egokia gerta daiteke zientzia sozialen kontzeptuak, legeak eta teoriak lantzerakoan ikasgelan.

EUSKAL EKONOMIAREN AZTERKETA ZIENTZIA EKONOMIKOAREN BIDEZ

Komunikazio honen aztergai Euskal Autonomi Elkarteko derrigorrezko bigarren hezkuntzako Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloan euskal ekonomiak duen -edo izan lezakeen— presentzia eta tratamendua da. Beraz, gizarte zientzien eremu zabalaren barruan, ekonomiaren esparru konkretuan kokatzen gara.

Burutzen ari den erreforman, eta gizarte zientzien arloari dagokionez, hezkuntzan tradizio luzea duten diziplinez gain, geografia eta historia, alegia, gizartearen ezagumendu osoago batetarako gaur egun ezinbestekoak bilakatu doazen beste diziplina batzu ere aintzakotzat hartu dira. Horien artean, ekonomia. Neurri honek aurrerapausu handia suposatu beharko luke gizarte zientzien arloa eraberritzeko eta gaurkowitzeko, irakas-ikas prozesua motibagarriago gerta dadin, bai ikasleentzat eta bai irakasleentzat.

Orain arte derrigorrezko hezkuntzan ekonomiak ez du leku propiorik izan. Geografia edo historiako edukien barruan aspektu ekonomikoak tratatu direnean, tratamendu hori ez da egin, gehienetan, zientzia ekonomikoaren ikuspuntu, metodo eta teoretatik abiatuz.

Aurreko epigrafean gelako irakas-ikas prozesuan euskal gizartea eta zientzia sozialen artean eman daitekeen elkarloturaz hitzegin dugu. Esandakoak berdin balio du alor horien bi aspektu konkretuagoetarako: euskal ekonomia eta zientzia ekonomikoa.

Helburua euskal ekonomiaren azterketa zientifikoa egitea baldin bada, zientzia ekonomikoak eskaintzen duen aparatu metodologiko eta kontzeptuala erabiltzea beharrezkoa izango da. Aldiz, helburu zuzena zientzia ekonomikoaren kontzeptuak, printzipioak teoriak, etab. ulertzea baldin bada, euskal ekonomia izan daiteke askotan, ikasleengandiko hurbiltasunagatik, abiapunturik egokiena, Irakas-ikas prozesua baterantz zein besterantz zuzendua izan, euskal ekonomia aztertzeraino zein oinarrizko zientzia ekonomikoa menperatzera, mugimendu biak elkarrindartzen diren prozesuak bilakatzen dira.

IRAKASLEGOAREN PRESTAKUNTZA

Gizarte arloan ari den irakaslegoaren gehiengoak ez du prestakuntza berezirik izan erreforma honekin curriculumera gehitu nahi diren diziplina berrietan (ekonomia, soziologia, politika, antropologia,...).

Hutsune hau betetzeko, beharrezkoa iruditzen zaigu curriculum eraberrituari buruzko erreflexio eta azterketak egitea gizarte zientzien arloa osatzera eta aberastera etorri diren diziplina berrietatik abiatuta. Analisi hauek sakontzen eta ugaltzen doazen neurrian irakaslegoaren zientzia sozialei buruzko formazioa ere sendotuz eta aberastuz joango da, ikasgelan gizartea aztertzerakoan, ohizkoek gain, metodo eta kontzeptu berriak erabiltzea posibilitatuz.

Honek, hezkuntz-praktikan guztiz garrantzitsua bilakatzeko den beste aspektu bati ere bidea ireki diezaioke: gelan erabiltzen diren materialak. Sarri askotan irakas-ikas prozesuak ez du hobakuntzarik ezagutzen irakaslegoak ez duelako material egokirik izaten eskura tratatu beharreko edukiak lantzeko.

Puntu honek oraindik inportantzia gehiago hartzen du erreforma honekin, zeren irakasle-taldeek, batik bat, izango baitira arduradunak curriculum zentru bakoitzeko contextura egokitzeko. Eginbehar honetara heltzean, zientzia sozial berrien ekarpenei buruzko erreferente teorikorik gabe eta ikasgelan praktikan jartzeko materialik gabe aurkitzen hada irakaslegoa, irakaskuntzaren kalitatearen hobakuntzaren helburua behin gehiagotan asmo hutsean gertatuko da.

Kezka honi erantzunez, komunikazio hau hastapeneko erreflexio eta analisi bezala planteatuta dago aukeratu dugun gaiaren inguruan: euskal ekonomiaren presentzia eta tratamendua 12-16 etapako gizarte arloan.

BIGARREN HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA BATXILERGOAREN ARTEKO DERRIGORREZKO ETAPA

Lehen Hizkuntza eta Batxilergoaren —edo Hezkuntza Tekniko Profesionalaren— artean kokatzen da izaera konpren-siboa, batik bat, duen derrigorrezko bigarren hezkuntza. Beste lan batetan aztertu beharko genuke Euskal Herriko ekono-mia tratatzeko Lehen Hezkuntzako etapak, batez ere bere hirugarren zikloan (10-12) eskaintzen duen aukera.

Bigarren Hezkuntzako lehenzikloko (12-14) edukiek aurreko etapa horretan ikusitakoekin logika diziplinarra eta logi-ka psikologikoa gorde beharko lukete, aspektu konkretuetatik abstrakzio maila handiagokoetarako pausua ikasleen garapen-maila psikoebolutiboa kontutan hartuz eman ahal izateko.

Beste alde batetik, 12-16 etapan zehar ikasleek ekono-miaz hartuko duten formazioak nahikoa izan beharko du, hurrengo hezkuntz etapetan (Batxilergoa edo Hezkuntza Tekniko Profesionala) Ekonomia edo Enpresarekin loturiko galak dituzten modalitateen aukera egiten duten ikasleek gai horiek zailtasunik gabe jarraitzeko gai izan daitezten. Ikasleagoaren parte batek, beraz, ekonomiaren oinarriko kontzeptuak, printzipioak eta metodoak menperatzea beharrezkoa izango du hurrengo hezkuntz etapetan egokiro moldatzeko.

Baina horrez gain, derrigorrezko etapa batek beste aspektu bat ere kontutan izan behar du. Ikasleagoaren gehien-goak —batzuk, ez dutelako ikasten jarraituko, eta beste batzuk, heuren formazio akademikoa beste jakintza arlo batzutura zuzenduko dutelako— ez du, normalean, inoiz gehiagotan aukerarik izango ekonomia edo euskal ekonomiaren inguruko gaiak lantzeko. Beraz, gaur egun, ekonomiarekin erlazionaturiko gaiak eta kontzeptuak nonnahi agertzen direnean, beharrezkoa izango da Euskal Herriko ekonomia determinatzen duten zenbait oinarriko elementu menperatzeko ahalegina egitea derrigorrezko etapa honetan zehar, etorkizunean ikasleek arazo ekonomikoen aurrean eritzi kritiko eta propioa izan dezaten.

Hau lortu ahal izateko, irakasleagoaren prestakuntza egokia ezinbestekoa suertatzen da. Zenbat eta jantziago egon etapa honetako irakasleago ekonomiaren munduan, hainbat eta eza-gutza aberatsagoa izango du ikasleagoak ere euskal ekonomia-rena, eta ondorioz, euskal gizartearena. Modu honetan soilki lor daiteke, Euskal Autonomi Elkarteke curriculuma euskal gizartearen proiektu soziokulturalaren adierazpen bilakatzea.

KOMUNIKAZIO HONEN HELBURUAK

Egindako kontsiderazio hauen ostean, eta beraien sintesi gisa komunikazio honen nondik norakoak eta helburuak zehaztuko ditugu jarraian:

1. Lan honen bidez euskal ikaskuntzen atal Importante bat —euskal ekonomia— hezkuntz sisteman instituzionalizatzekeo ekarpen xume bat egin nahi izan da. Modu honetan, Euskal Herriko ekonomiari buruzko oinarriko jakintzak bigarren hezkuntzako curriculumean erroturik geratzea lortuko litzateke. Eginbehar zientifikoa eskatzen duenez, jakintza honek zabalik egon beharko lukete, kezka, ikuspuntu, interpretazio eta ekarpen berrietara.

2. Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia jakintza arloko Oinarriko Curriculum Diseinuko eduki kontzeptualen irakurketan ekonomiaren epistemologian oinarriturik egin.

3. Oinarriko Curriculum Diseinuan euskal ekonomiak duen presentzia eta tratamendua Zehaztu eta berau lantzeko irekitzen diren aukerak azaldu.

4. 12-16 etapan gizarte zientzien arloa landu beharko duen irakasleagoari zenbait erreflexio eta bide eskaini, euskal ekonomiaren inguruko gaiak Zentruko Curriculum Proiektuetara eta Gelako Programazioetara inkorporatu ahal izateko.

5. Gizarte zientzien arloa diziplina sozial berrien ekarpenen bidez aberasteko interesaturik daudenen artean eztabai-da zabaldu.

EUSKAL EKONOMIA OINARRIZKO CURRICULUM DISEINUKO EDUKI MULTZOETAN

Euskal Autonomi Elkarteke Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiako Oinarriko Curriculum Diseinuak (OCD) biltzen dituen eduki kontzeptualetatik abiatuz, Euskal Herriko ekono-miari buruzko jakintzen oinarriko corpusa definitzen saiatuko gara.

Corpus hori, esan bezala, ez da behin betirakoa izango, zenbait faktoreren arabera etengabe eraberritzen joan behar-ko duena baizik. Eraberritze hori bultzatzen hiru faktore izendatuko ditugu: gaien gaurkotatzea eta interesa, ekono-miaren eta euskal ekonomiaren esparruan egiten diren iker-kuntza zientifikoen ekarpen berriak, eta ikasgeletako praktika pedagogikoa.

Ikasgeletan jasotako esperientziak esango digu, azken finean, tratatzen diren gaiak ikasleen interesa erakartzeko gauza diren eta ikasleagoaren garapen-maila psikoebolutibora egokitzen diren, azken batez, jakintza zientifikoa jakintza eskolar bihurtzerakoan sortzen diren zailtasunez informatuko gaitu.

Edukien berrikuntza, beraz, esparru ezberdinetatik bul-tzaturik etor daiteke gizarteak hezkuntz-sistemari egiten diz-kion eskakizun berriengandik, zientziaren epistemologiaren aldetik, eta psikopedagogiaren esparrutik. Diziplina zientifiko-ren batetan lan egiten dutenen eginbehar nagusia, problema-tika berrietara adi egotea eta disziplina horren alde epistemologikoa sakontzea eta gaurkotzea da.

Curriculum berriak ezartzen eta esperimentatzen doazen neurrian, egoki izango litzateke harreman gehiago eta estua-goak izatea hezkuntzako profesionalen eta ikerkuntzara dedi-katzen direnen artean, modu horretan jakintza zientifiko gaurkotua jakintza eskolar esanguratsua bilaka dadin.

Aurrerago esan bezala, burutzen ari den erreforma dela eta, Euskal Herriko ekonomiari buruzko zenbait oinarriko eduki instituzionalizaturik gera daitezke hezkuntz sisteman. Hon dela eta, beharrezkotzat jotzen dugu euskal ekonomiak bigarren hezkuntzan izan dezakeen tokiaz analisiak egiten bastea.

Euskal Autonomi Elkarteke Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloko Oinarriko Curriculum Diseinuak bost ardatz kontzeptual kontenplazten ditu, bakoitzak zenbaif eduki multzo bilzen dituelarik.

Ardatz hauek aurkeztean, bakoitzean erreferente disziplina-rrak zeintzu diren informatzen du OCDak Ekonomiari dagokio-nez, zientzia hau erreferente diziplinar zentrala da, geografia eta soziologiarekin batera, II ardatzean (Antolakuntza ekono-mikoa, espazioaren erabilera eta eraldakuntza). Halaber, ekono-miak ekarpen inportanteak egin ditzakeela kontsideratzen da beste bi ardatz kontzeptual hauek lantzerakoan: I ardatza (Espazioa eta gizartea) eta III ardatza (Gizarte antolakuntzak espazioan eta denboran zehar). OCDak kontutan ez duen arren, uste dugu ekonomiaren ekarpena interes handikoa izan

daitekeela IV ardatza lantzean (Antolakuntza Soziopolitiko), ardatz honek biltzen dituen edukiengatik.

Euskal ekonomiari dagokionez, aztertzen ari garen OCDak Euskal Herriko ekonomiarekin –iraganekoa, oraingoa zein etorkizunera erreferitua— zerikusia duten gaiak modu esplizituz aurkezten ditu batzutan. Beste batzutan, esan bezala, euskal ekonomia tresna eta bide bilaka daiteke OCDan agertzen diren kontzeptu eta printzipio ekonomiko orokor eta unibertsalak lantzeko.

Jarraian eduki-multzo bakoitza aztertuko dugu eskema honen arabera:

1. Sarrera. Multzo bakoitzean, sarrera gisa, zientzia ekonomikoan oinarrituriko erreflexio epistemologiko labur bat egingo dugu.

2. Aukeratutako eduki kontzeptualak. Multzo bakoitzak euskal ekonomiari buruz duen erreferentzia zuzena jasoko dugu. Horrez gain, multzo horretan agertzen diren kontzeptu ekonomiko orokor edo unibertsalak lantzeko euskal ekonomiari buruzko datuak edo erreferenteak erabiltzea egoki izango litzatekeela uste dugunean, kontzeptu horiek ere bilduko ditugu.

3. Euskal ekonomiarako gaiak. Multzo bakoitzean aukeratutako eduki kontzeptual horiek euskal ekonomiarekin erlazionatzen diren zenbait tematikatan bilduko ditugu, modu honetan, multzoz multzo egindako aukeraketak batasuna izan dezan euskal ekonomiaren inguruan. Honela, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiako curriculum globalaren barruan, euskal ekonomiaren oinarritzko curriculum definiturik geratuko litzateke; euskal ekonomiaren inguruan logika, koherentzia eta batasuna gordeko lukeen curriculum partzial bat izango litzateke.

Curriculumaren inguruan zientzia sozial eta interesgune ezberdinetatik egindako analisiak ugaltzen diren heinean, gero eta argiago azalduko da curriculum horren sakoneko egitura eta diziplina sozialen artean proposatzen duen erlazio implizitua.

4. Lantzeko kontzeptuak. Euskal ekonomiaren inguruan bildutako gaiak egokiro tratatzeko zenbait kontzeptu ekonomiko lantzea eta menperatzea proposatzen da.

1. MULTZOA: GIZADIA ETA INGURUNE FISIKOA

Sarrera

Multzo hau lurraldearen eta giza-elkartean artean sortzen diren harremanez, eta interakzio honek ingurugiroarekiko dituen ondorioez arduratzen da, batik bat. Azterketa hau zenbait eskalatan egin nahi da, lokaletik mundu mailakoraino, autonomiko eta estataletik pasatuz.

Fenomeno espazialak faktore askoren ondorio dira, eta kontutan hartuz gaur egun lurreko baliabide natural guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, giza-ekintzen eragina jasaten dutela, giza-faktore eta faktore fisikoen arteko interakzioen kausak eta ondorioak aztertu nahi dira. Era askotako giza-ekintzak aurki genitzakeen arren, eraginkorrenetarikoa ihar-duera ekonomikoa bilakatzen da.

Multzo honen interesguneetariko bat, beraz, ihar-duera ekonomikoak ingurunean duen eragina aztertzea eta bere kontserbazioa eta hobakuntzari buruzko erreflexioa zabaltzea da. Azken urte hauetan analisi ekonomikoa ingurugiroaren problematikara zabalduz joan da, erreflexio ekonomikoa baliabideen —eta hondakinen— arazora hedatuz.

Ingurune fisikoa osatzen duten baliabideen tratamendu ekonomikorako bi bide, elkar osagarriak, proposatu dira. Bata, ekonomiaren balorazio-sistemak ingurune fisikoa osatzen duten elementuetara hedatzea, modu honetan kostu, prezio eta benefizio terminoetan arrazonatzen duen logika ekonomiko arruntean sartuz. Bestea, natur zientziei buruzko ezagumenduak giza-elkarteek egiten duten ingurunearen gestiora aplikatzea.

Norabidea baterantz zein besterantz izan, argi dago zientzia ekonomikoak orain arte mantendu izan den sistema itxitik behingoz irten egin behar duela, ingurune fisikoaren mundura zabalduz. Ingurunea kontutan hartzean, objektu ekonomikoak ez dira sistema itxi horren barruan sortuko, “produktzioak” balioa eskaintzen dienean, ez eta iraungiko horren baitan beren truke-balioa, “kontsumoa”ren bidez, iraungitean. Beraz, planteamendu berri honek eskatzen duena hau da: objektuei buruzko erreflexio ekonomikoa objektu horien ezein motatako balorazioaren aurretiko existentzia fisikora (baliabideak) eta beraien baliogaleraren ostekora (hondakinak) eramatea.

Aukeratutako eduki kontzeptualak

- Ingurugiroa eta bere kontserbazioa.
- Paisaia geografikoak ingurune naturalaren eta gizakien arteko elkarreraginaren ondorio gisa.
- Ingurunearen hondamenak dakartzan arazoak, eta politika zuzentzaileak.

Euskal ekonomiarako gaiak

- Euskal Herriko ekonomiaren azterketa ingurugiroaren problematika kontutan hartuz analisi ekonomikoan.
- Euskal Herriko enpresen jokabide aldaketa ingurugiroaren problematikaren aurrean: ondorio ekonomikoak.
- Ingurugiro-politika Euskal Herrian.

Lantzeko kontzeptuak

- Baliabideen kontsiderazioa: kapitala ala errenta.
- Baliabide naturalen eta hondakinen balorazioa
- Externalitateak.
- Ingurugiroaren prezioa, balioa eta kostua.
- Produktzioaren estimazioa ekonomia sistema itxi edo ireki bezala kontsideratuz: Barne Produktu Gordinetik Ongizate Ekonomiko Netora.
- Hazkunde ekonomiko sostenigarria.

2. MULTZOA: ESPAZIOAREN ANTOLAMENDUA: DEMOGRAFIA, HABITAT ETA HIRIGINTZA

Sarrera

Multzo honetan, populazioaren banakuntzak eta mugimenduek, beste zenbait faktoreren artean, baliabideekin, desberdintasun ekonomikoekin eta hirigintza fenomenoarekin duten erlazioa jarri nahi da agerian.

Desberdintasun ekonomikoen arazoa, indar gehiagok edo gutxiagok, eta ikuspegi diferenteetatik aztertuta, pentsamendu ekonomikoaren historian zehar presente egon da beti. Hala ere mundu mailako desberdintasunen kausen azterketa sistematikoek mende honen erditik gerorantz hartzen dute indarra, azpigarapenaren problematika azaleratzen hasten denean.

Eskala txikiagoko (autonomikoa, estatukoa,...) desberdintasun ekonomikoaren tratamendua Errentaren Banakuntzari buruzko ikerketetara loturik agertzen da. Populazioa, produktio-faktore kontsiderazioa duenez ekonomian, errenta-hartzaile bilakatzen da prozesu produktiboa burutzerakoan.

Bestalde, hiri-fenomenoa ekonomiaren ikuspegitik aztertzeko arlo berezi bat garatuz joan da zientzia honen barruan: hiri-ekonomia.

Aukeratutako eduki kontzeptualak

- Populazioa eta baliabideak.
- Baliabideen banaketa desberdina eta desorekak populazioaren hazkunderan.
- Gaurregungo joera eta arazo demografikoak Euskal Herrian.
- Etxebizitza eskuratzeko arazoak.
- Hiri-espazioa.
- Hiri-espazioa eta egitura sozioekonomikoa.

Euskal ekonomiarako gaiak

- Euskal herriko populazioa oinarrizko elementua iharduera ekonomikorako.
- Desberdintasunak errentaren banakuntzan Euskal Herrian.
- Etxebizitzen eskaintza eta eskaria baldintzatzen duten faktoreak Euskal Herrian.
- Egitura ekonomikoaren aldaketa eta hiri-fenomenoaren garapena Euskal Herrian.

Lantzeko kontzeptuak

- Populazio aktiboa / Populazio inaktiboa / Aktibitate-tasa / Langabezia-tasa.
- Errentaren banakuntza espaziala.
- Oreka eta desoreka etxebizitzaren eskaintza eta eskariaren artean.

3. MULTZOA: BALIABIDEAK ETA BERAUEN USTIAKUNTZA

Sarrera

Multzo honen gunea kontextu geografiko eta historiko konkretuetan ondasun eta zerbitzuak lortzeko ematen den baliabideen ustiakuntza eta erabiltzen diren prozesu produktiboak aztertzea denez, ekonomia klasikoaren ikuspegia guztiz baliagarria gertatzen da. Ikuspegi honetatik abiatuz, euskal ekonomiaren analisi sektorialera jaitzi gaitzake.

Analisi mota honek, multzo honetan nahi den bezala, eta beste zenbait aspektuz gain, agerian jarriko du iharduera ekonomikoaren eta luraren erabileraren artean dagoen erlazioa. Agerian jarriko du, baita ere, gizarte garatuetako tertziarizazio-prozesu hazkorra.

Multzo honetako gaiak eta edukiek, Ingurugiroaren problematikara lotuta agertzen direnez, erlazio zuzena dute lehen multzoan garatutako gai eta edukiekin.

Aukeratutako eduki kontzeptualak

- Nekazal iharduera
- Munduko espazio eta nekazal ustiakuntza-sistema nagusiak.

- Arazoak: soberakinak, gosea, lurren hondamena.
- Nekazaritzaren arazoak Euskal Herrian.
- Itsas baliabideak.
- Arrantza-ihardueraren perspektibak Euskal Herrian.
- Lehengai eta energi-iturrien ustiakuntza munduan.
- Baliabideen eraldakuntza: industria.
- Euskal Herriko industriaren perspektibak.
- Hirugarren sektorearen garapena Euskal Herrian.

Euskal ekonomiarako gaiak

- Euskal Herriko nekazal eta arrantza sektorea.
- Euskal industriaren krisia.
- Zerbitzu sektorea Euskal Herrian.

Lantzeko kontzeptuak

- Sektore ekonomikoa / Azpisektore ekonomikoa.
- Sektore ekonomikoaren ekarpena Barne Produktu Gordinera (BPG) / Errentaren banakuntza sektoriala / Sektoreen posizio erlatiboa.
- Prezioen bilakaera eta banakuntza sektoriala / BPG nominala eta erreala / BPGaren tertziarizazio-prozesua (nominala eta erreala).

4. MULTZOA: ANTOLAKUNTZA EKONOMIKOA ETA LAN MUNDUA

Sarrera

Multzo honen bidez gaurko munduan oso erabiliak diren zenbait oinarrizko kontzeptu ekonomiko eskaini nahi zaizkio ikasleari. Horregatik, multzo honek, zientzia ekonomikoak bere ibilbidean zehar tratatu dituen arazoak eta sortu dituen kontzeptu funtsezkoenak biltzen ditu. Beraz, pentsamendu ekonomikoan nabarmendu diren eskola guztien ekarpenak gertatzen dira baliagarriak: ekonomia klasikoa, ekonomia neoklasikoa, keynesianismoa, azpigarapenaren teorizatzaileak eta monetaristak.

Aukeratutako eduki kontzeptualak

- Ondasun eta zerbitzuen produktzioa.
- Parte hartzen duten faktoreak: lurra, lana eta kapitala.
- Agente ekonomikoak: familiak, enpresak eta administrazio publikoak.
- Ondasun eta zerbitzuen banakuntza eta erabilera.
- Errentaren banakuntza: alokairuak eta benefizioak.
- Desberdintasunak eta gatazka sozialak.
- Sindikatoak eta erakunde enpresarialak.
- Bizi-kostuaren indizea, aberastasun eta ongizate adierazleak.
- Agregatu makroekonomikoak: kontsumoa eta inbertsioa.
- Arazo ekonomikoak: inflazioa eta langabezia.
- Interbentzio ekonomikorako tresnak.
- Sistema ekonomiko desberdinak: aurrekapitalista, kapitalista eta sozialista.

- Merkatu ekonomiaren oinarriko kontzeptu eta erakundeak.
- Eskaintza eta eskariaren legea.
- Merkatu motak.
- Dirua eta finantz-erakundeak.
- Kanpo merkataritza: Pagamendu-balantza eta kanpo-zorra.
- Azpigarapenaren problematika: garapen ekonomikoko maila desberdinak eta elkartruke desberdina.

Euskal ekonomiarako gaiak

- Merkatu konkurrentzialak eta ez-konkurrentzialak Euskal Herrian.
- Errentaren banakuntza faktore produktiboen artean eta agente ekonomikoen artean Euskal Herrian.
- Ongizate-adierazleen bilakaera Euskal Herrian: analisi konparatiboa.
- Euskal Herriko administrazio publikoen interbentzioa ekonomian.
- Euskal ekonomiaren kanpo-harremanak: euskal pagamendu-balantza.

Lantzeko kontzeptuak

- Merkatua / Eskaria eta eskaintza / Merkatuaren oreka eta desoreka / Merkatu konkurrentzialak eta ez-konkurrentzialak / Konkurrentzia osoa, oligopolioa eta monopolioa.
- Errentaren banakuntza faktoriala eta funtzionala / Errentaren berbanakuntza.
- Makroagregatuak: kontsumo pribatua, kontsumo publikoa, inbertsio pribatua, inbertsio publikoa.
- Barne Produktu Gordina biztanleko / Famili Errenta Erabilgarria biztanleko.
- Langabezia / Inflazioa.
- Moneta-masa / Interes-tasa / Kutxa-koefizienteak.
- Moneta-politika / Politika fiskala / Errenta-politika.
- Nazioarteko merkataritza / Pagamendu-balantzako kontusailak / Exportazioak eta inportazioak (ondasunak eta zerbitzuak) / Kapital mugimenduak / Dibisa-erreserba / Monetaren ganbio-tasa / Debaluazioa eta birbalioztapena.
- Garapen desberdina / Kanpo-dependentsia / Elkartrukeen erlazio erreala.

6. MULTZOA: GIZARTE HISTORIKO PREINDUSTRIALAK

Sarrera

Multzo honetan gizarte historiko preindustrialen oinarri ekonomikoa eta garapen maila aztertu nahi direnez, zientzia ekonomikoa marxistak tresna interesgarriak eskaintzen ditu metodologia eta kontzeptu aldetik.

Analisi materialista kontextu historikoan sustraiturik dago, produkzio-moldea eta egitura ekonomikoa erabiltzen ditu kontzeptu zentral bezala eta metodo dialektikoan oinarritzen da. Modu honetan, historian zeharreko produkzio-moldeen tipologia sortzean, pentsamendu ekonomikoa marxistak ekar-

pen inportantea egin du ekonomiaren analisi historiko eta estrukturalera.

Aukeratutako eduki kontzeptualak

- Gizarte harrapari eta biltzaileak.
- Paleolitikoa Euskal Herrian.
- Lehen nekazal, abeltzain eta hiri gizarteak.
- Gizarte esklabistak.
- Erromanizazioa Euskal Herrian.
- Morrontza-gizarteak.
- Erakunde feudalak Euskal Herrian.
- Aintzinako Erregimeneko gizarteak Aro Modernoan.
- Euskal foruen sorrera eta sendotzea eta espainiar monarkiarekiko harremanak Aro Modernoan.

Euskal ekonomiarako gaia

- Denboran zehar Euskal Herriko lurraldeetan izandako gizarte ezberdinen oinarri ekonomikoa.

Lantzeko kontzeptuak

- Produkzio moldea / Egitura ekonomikoa / Gainegitura / Ustiakuntza / Indar produktiboak / Jabegoa / Banakuntza / Lan-zatiketa / Akumulazioa.

7. MULTZOA: GIZARTE HISTORIKO GARAIKIDEAK

Sarrera

Multzo hau giza-elkarteek XIX. eta XX. mendeetan zehar izan duten bilakaeraz arduratzen da. Hori dela eta, kapitalismo industrialarekin hasita, inperialismoa, iraultza sozialista eta azpigarapena aztertzen dira.

Multzo honetan, kapitalismo industrialaren etapa historikoa ulertzeko, guztiz baliagarriak izango dira ekonomista klasikoen ekarpenak. Horrez gain, ezinbestekoa izango da pentsamendu ekonomikoa marxistak eta azpigarapenaren teorizatzaileek sortutako kontzeptuetara jotzea.

Aukeratutako eduki kontzeptualak

- Iraultza industrial, kapitalismoaren garapena eta Inperialismoa.
- Industrializazioa Euskal Herrian.
- Iraultza sozialista.
- Deskolonizazio prozesua.
- Munduko ordenu ekonomikoa-politiko berria.
- Euskal Herria XX. mendean.

Euskal ekonomiarako gaiak

- Industrializazio prozesua Euskal Herrian.
- Sozialismoaren eragina euskal langile mugimenduan.
- Euskal ekonomiaren bilakaera XIX. eta XX. mendeetan.
- Euskal ekonomiaren harremanak herrialde azpigaratuekin.

Lantzeko kontzeptuak

- Kapitalismoa industrial / Finantz kapitalismoa / Sozietate anonimoak / Kapitala / Akzioak / Lan merkatua / Lan malgutasuna / Konkurrentzialtasuna.

- Erabiltzeko balioa / Truke-balioa / Gainbalioa.
- Zentrua eta inguraldea mundu merkataritzan.

- GATT: hesi arantzelarioak eta ez-arantzelarioak / Nazio faboratuaren klausularen multilateralizazioa / Negoziazio Errondak.
- Nazioarteko Moneta Fonda.

9. MULTZOA: ESPAZIOA ETA AGINTE POLITIKOA

Sarrera

Multzo honen helburu funtsezkoena Euskal Herriak gaur egun duen antolamendu politikoa (egitura, erakundeak, funtzionamendua, mekanismoak,...) aztertzea da. Zenbait erakunde instituzionalen eginbeharra, era batean edo bestean, iharduera ekonomikora loturik agertzen denez, analisi ekonomikoak tresna baliagarriak eskaini ditzake erakunde horien funtzioak eta aktuazioa ulertzeko.

Aukeratutako eduki kontzeptualak

- Estatu espainoleko Autonomi Elkartek.
- Antolakuntza politiko probintziala eta udal mailakoa.
- Euskal Herriko instituzio politikoak.
- Gernikako Estatutua.
- Lurralde Historikoen Legea.
- Diputazioak eta Udaletxeak.
- Europaren erakuntza Europar Batasuna.
- Nazioarteko erakunde ekonomikoak.

Euskal ekonomiarako gaiak

- Euskal Herriaren berezitasunak Administrazio zentralarekiko harreman ekonomikoetan Kontzertu Ekonomikoa.
- Euskal Herriko ekonomian duten eragina nazioarteko erabakiek Europar Batasuna eta GATT (Arantzel eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra).

Lantzeko kontzeptuak

- Kontzertu Ekonomikoa / Kupoak / Zergen gestioa / Transferentziak.
- Europar Elkarrekin aduana batasuna / barne merkatu bakarra / Nekazaritza Politika Bateratua / armonizazio politikak / Europar Moneta Sistema / Konbergentziarako baldintzak.

BIBLIOGRAFIA

- ANAYA (1992): *Proyecto Curricular para la Educación Primaria Euskadi*. Madrid, Grupo Anaya.
- EUSKO JAURLARITZA (1992) *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (Etaparako sarrera. Zehar Lerroak)* Gasteiz.
- *Oinarrizko Curriculum Diseinua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia.*
 - *Oinarrizko Curriculum Diseinua Lehen Hezkuntza (Inguruareri Ezaguerara,...).*
- MEC (1989): *Libro Blanco para la Reforma del Sistema educativo*. Madrid.
- *Plan de Investigación educativa y de Formación del Profesorado.*
 - *Diseño Curricular Base. Educación Secundaria Obligatoria I.*
 - *Ejemplificaciones del Diseño Curricular Base. Secundaria.*
- MEC (1991): *Bachillerato Estructura y Contenidos*. Madrid.
- MOCHON, Francisco (1992): *Economía Básica*. Madrid, McGraw-Hill.
- MUÑOZ CIDAD, Cándido (1989) *Introducción a la economía aplicada*. Madrid, Espasa Calpe.
- NAREDO, J.M. (1987): *La economía en evolución. Historia y perspectivas de las categorías del pensamiento económico*. Madrid, Siglo XXI.
- (1992): "Transdisciplinaridad y medio ambiente en el pensamiento económico actual" en *Revista de Economía*, nº 14.
- SAMUELSON, P.A. eta NORDHAUS, W.D. (1990): *Economía* Madrid, McGraw Hill.
- TAMAMES, Ramón (1989): *Fundamentos de Estructura Económica* Madrid, Alianza.
- (1992) *Curso de Economía* Madrid, Alhambra Longman.
- TORRES LOPEZ, J. (1992): *Introducción a la Economía Política*. Madrid, Civitas.